



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2019ko OTSAILAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko otsailaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Xabier Mugika Letamendia
Onintza Gorostidi Murua

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
✓ **2019ko otsailaren 5ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Coresolutions enpresari Udal inbentarioaren eguneratzeko kontratua esleitzea, hala bada.**
- 5. XV.Aiztondo Klasikoa "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2018 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada.**
- 6. XVI. Aiztondo Klasikoa "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2019 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**
- 7. Tolosaldea Garatzen 2019 urteari dagokion ekarpena burutzeko eskaera onestea, hala bada.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2019ko otsailaren 5eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

04/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa, M.D.A. andreak eginiko eskaera onestea, hau da Saletxe baserriaren ondasun higiezinaren gaineko zergan 2014tik 2018urtera hobariak onestea, ebazten duena.

05/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30koa, A.G. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da Saletxe baserriaren ondasun higiezinaren gaineko zergan 2017 eta 2018urteko hobariak onestea, ebazten duena.

06/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 7koa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

07/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 13koa, Atxikitzea posta zerbitzua kontratatzeko espedienteari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralari, ebazten duena.

08/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Kuku-Lore liburudendari liburua erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

09/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Goieko industria garbitasunerako enpresari herri ostaturako umeen pardela aldatzeko mahaia erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

10/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Koldo Nuñez Betelu hizlariari Alkizako Fagus interpretazio zentruan hitzaldi bat emateko kontratua esleitzea,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ebazten duena.

11/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Zizurkil Elektrizitatea S.L.-ri Alkizako ur depositoko bonba mugitzeko elektrizitateko hainbat lan egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

12/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Zizurkil Elektrizitatea S.L.-ri Alkizako frontoian, kultur etxean eta udaletxeko eskaileretan elektrizitateko hainbat lan egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

13/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Import-Quimia, S.L.-ri uraren kudeaketarako Alkizako ur depositorako hainbat produktu erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

14/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Antonio Elosegui,S.L.-ri, ur kontadore bat erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

15/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Euskal Hotz enpresari, Alkizako Herri Ostatuan barran dagoen botelleroa konpontzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

16/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Iturralde Industriegaiak enpresari, liztor asiaticoa kentzeko hainbat produktu erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

17/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Komunikazioa biziagoa S.L.-ri Argia aldizkariaren harpidetza egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

18/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Exclusivas de quimicos y servicios enpresari, garbitasuneko hainbat produktu erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

19/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, Kuku-Lore liburudendari liburua erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

20/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 14koa, M.Uranga enpresari, herri Ostatuako matxuratutako ontzi garbigailua konpontzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ez dira aurkezten.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA
CORESOLUTIONS ENPRESARI UDAL INBENTARIOAREN
EGUNERATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA, HALA BADA

Ikusirik Udal inbentarioa egin zela 2015. Urtean.

Ikusirik, aipaturiko inbentarioaren gaur eguneratzea egin behar dela, horretarako Coresolutions enpresak aurkeztu du aurrekontu bat, 4.500,00 euro izanik.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Horniketa kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

CORESOLUTIONS enpresarekin, Alkizako Udalak 2019. urtean zehar ez du 15.000€ko zerbitzu kontratuen urteko muga gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: COREOLUTIONS enpresari, Alkizako Udal inbentarioaren gaur eguneratzeko kontratua esleitzea 4.500,00€ (BEZa kanpo), 227.920.00.03 kontu sailaren kontura "Udal inbentarioa".

BIGARRENA: Zerbitzu kontratu txiki hau Alkizako kontratazio profilean iragartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Coresolutions enpresari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

XV.AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2018 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XV Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu dela, Alkizako Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 1.461,80 euro izan zen eta kitapena egin ondoren jarri beharko zuena 1.940,68 euro, beraz 478,88 eurotako defizita egon dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XV. Klasikoak, "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da eta defizitaren diru-kopurua ordaintzeko agindua ematea, 2019ko aurrekontuetako 481.340.00.03 kontu sailaren kargura.

SEIGARREN PUNTUA

XVI. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XVI. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" aurrekontua bidali duela, guztira 19.500 eurotako dena, datorren martxoaren 17an ospatuko dena. Alkizako Udalarari 1.977,11 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2019ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailan, aurrekontu nahikoa aurrirakosten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 1.977,11 eurotako ekarpena burutzea 2019ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 1.977,11 eurotako gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2019 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 19:50 orduetan bertaratzen da Udalbatzarrera.

Ikusirik 2018ko abenduaren 17ko datuz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalarari 2019 urteari dagokion ekarpena 5.519,03 eurotako dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 2.759,52 eurotako burutzeko eskatzen duelarik. Bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin beharko delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2019ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidaren aurrekontu nahikoa aurrikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2019 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea, 5.519,03 eurotako delarik, eta lehenengo ekarpena burutzea, 2.759,52 eurotako kopuruan. Bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egingo delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2019 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. PROGRAMA BIDEZKO BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEKO, ALKIZAKO HERRIAREN SUSTAPEN KULTURAL ETA TURISTIKOA BULTZATZEKO LANPOLTSAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik Programa bidezko bitarteko funtzionario bat kontratatze beharrean dagoela Alkizako Udala, Alkizan Herriaren sustapen kultural eta turistikoa bultzatzeko.

Ikusirik, aipaturiko lan kontratua egiteko lan poltsa bat egin behar duela Alkizako Udalak, horretarako dagozkion oinarriak prestatu direlarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Programa bidezko bitarteko funtzionario bat izendatzeko, Alkizako herriaren sustapen kultural eta turistikoa bultzatzeko lan poltsaren deialdia eta oinarriak onartzea.

8.2. CLUB DEPORTIVO ERNIOPEK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Club Deportivo Erniopek, euren estatutoak berritzen ari direla,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

helbide soziala Udaletxearen lokala denez, bere helbide soziala bezala jartzeko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Club Deportivo Erniope-ri Udaletxe azpian dagoen buzoietako lokala bere helbide soziala bezala erabiltzeko baimena ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

9.1. GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK AURKEZTURIKO, TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA KONPROMISO ADIERAZPENAREN ONESPENA.

Ondoren Galtzaundi Euskara Taldeak aurkezturiko konpromiso adierazpenaren berri ematen da, ondorengoa dioelarik:

“TOLOSALDEKO EUSKLGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA TOLOSALDEKO EUSKAREN MAHAIA

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren mugan daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gune ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaioan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenetarako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberitze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnagunea euskararentzat. Baina ausardiaz, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetako lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatuak eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordaten diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaik. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

*sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazko eraikitze urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: **TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.***

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baiten hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaiak eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkariak zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

*Horregatik guztiagatik, ordezkatzeko dudako erakundearen izenean, **ADIERAZTEN DU:***

- 1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiaz, Elduain, Gaztelu, Henialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, orexa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan –horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.*
- 2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.*
- 3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaia izango dituen Misio eta Helburuekin:*
 - a. Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.*
 - b. Helburu estrategikoak:*
 - I. Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.*
 - II. Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.*
 - III. Normalizazio errealaren lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- IV. *Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.*
- c. *Helburu estrategikoak:*
- I. *Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.*
 - II. *Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.*
 - III. *Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.*
4. *Ordezkatzen dudana erakundeak gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.*
5. *Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzen dudana erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jardura eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Galtzaundi euskara taldeak aurkezturiko, Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berria TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA Konpromiso adierazpean bere osotasunean onesten du.

9.2. TOLOSAKO UDALAK AURKEZTUTAKO, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMO ONARTZEKO ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO MOZIOA

Berlaratuek aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, gaiari buruz informazio gehiago izan arte.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiak izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.